



## DOSSIER DE PRESSE PRENTSA TXOSTENA

Saint-Pée-sur-Nivelle, le 2 octobre 2019.  
Senpere, 2019ko urriaren 2a.

### EXPOSITION SCULPTURES ZIZELKETA ERAKUSKETA

# Mugak

Ttitto Aguerre



**La Commune de Saint-Pée-sur-Nivelle accueille le sculpteur Ttitto AGUERRE qui présente une large sélection de ses dernières réalisations.**

**Senpereko Herriak Ttitto AGUERRE zizelkaria errezebitzen du, azkenik burutu lan sail andana aurkeztuko duelarik.**

**Entrée libre à l'Espace Culturel Larreko, structuré en conséquence, du 10 octobre au 2 novembre 2019.**

**Larreko Kulturguneko sarrera dohainik izanen da, araberan moldatua, 2019ko urriaren 10etik azaroaren 2ra.**



**Elkarbarneraketa II - Compénétration II**  
Aluminioa - Aluminium  
24,5 x 39 x 22 cm

**Titto AGUERRE** (Uhart Cize, 1974) présente à Saint-Pée-sur-Nivelle une exposition de sculptures intitulée « Mugak - Limites ». Une sculpture très intimiste construite autour de formes géométriques, rigoureuses, volontaires et toniques ; des conversations de matières et de vides qui décalent notre regard à travers des oeuvres réalisées sur bois, acier, aluminium, cuivre, albâtre ou papier.



**Titto AGUERRE** (Uharte Garazi, 1974) zizelkariak, « Mugak » izenburupeko zizelketa erakusketa Senperen aurkezten du. Bizkorgarriak, nahitara-koak eta zorrotzak diren forma geometrikoz osatutako barne-barneko zizelketa ; gure begirada aldaratzeko, materien eta hutsen arteko elkarriketek, zurez, altzairuz, aluminioz, kobrez, alabastroz edo paperez egin obren barna eramanen gaituzte.

### **Exposition Mugak Erakusketa. Titto Aguerre Espace Culturel Larreko Kulturgunea**

concerts - conférences - visites commentées - sensibilisation jeune public  
kontzertuak - mintzaldiak - bisita komentatuak - haurrenganako sentsibilizazioa

Du 10 octobre au 2 novembre 2019  
2019ko urriaren 10etik azaroaren 2ra  
Entrée libre - Sartzea urrik.

Du mardi au vendredi 10h00-12h00 et 15h00-18h30  
Le samedi 10h00-12h00 et 15h00-19h00  
Le dimanche 15h00-18h00

Asteartetik ostiralera 10:00-12:00 eta 15:00-18:30  
Larunbatetan 10:00-12:00 eta 15:00-19:00  
Igandetan 15:00-18:00

### **Vernissage / Estreinaldia**

Le jeudi 10 octobre 2019 à 18h30. **Interprétation chantée de Ruper Ordorika.**  
Entrée libre.

2019ko urriaren 10ean, ostegunarekin, 18:30etan. **Ruper Ordorikaren saioa.**  
Sartzea urrik.

**Visites commentées**, les samedis 12-19-26 octobre 2019, à 17h00 (eus) et à 18h00 (fra).

**Bisita komentatuak**, larunbatetan, 2019ko urriak 12-19-26, 17:00 (eus) eta 18:00 (fra). Sartzea urrik.

**Conférence/approche « minéralogie »**, samedi 26 octobre 2019, à 19h00. Participation de passionnés en minéralogie. Entrée libre.

**Mintzaldia/hurbilpena « mineralogia »**, 2019ko urriaren 26an, larunbatarekin, 19:00etan. Mineralogiaren ikerketan adituen parte hartzearekin. Sartzea urrik.

**Sensibilisation jeune public**, durant le temps scolaire, sur inscription.

**Haurrenganako sentsibilizazioa**, eskola denboran, izena aitzinetik emanaz.

**Concert de clôture** le vendredi 1er novembre 2019 à 20h30. **Kalakan.** Entrée 16 € / 10 €.

**Bururatzeko kontzertua** 2019ko azaroaren 1ean, ostiralarekin, 20:30etan. **Kalakan.** Sartzea 16 € / 10 €.

« La sculpture a toujours eu, en Euskal Herri, une place à part, prépondérante. Enracinée dans notre culture, il faut probablement l'associer aux traditions ancestrales, avec l'intérêt particulier qu'elle porte à la taille du bois, au travail du fer. Mais elle exprime aussi un désir et une volonté de modernité et de créativité reconduits à chaque génération », tel est le propos introductif des auteurs de l'ouvrage « Sculpteurs basques - Euskal zizelkariak ».

Une pratique artistique intimement liée à une perception du monde insufflée par une densité importante de sculpteurs issus d'un si petit territoire et pourtant si emblématiques à l'échelle internationale pour plusieurs d'entre eux. Au coeur de la vallée de la Nivelle, Saint-Pée-sur-Nivelle s'impose chaque jour davantage par son rayonnement culturel en accueillant, à l'espace culturel Larreko, concerts, spectacles de danse, pièces de théâtre, expositions de peinture et de sculptures.

C'est donc tout naturellement que la commune a souhaité mettre à l'honneur à l'Espace Culturel Larreko, structuré en conséquence, l'oeuvre du Senpertar Ttitto Aguerre qui nous fait le plaisir de mettre en partage un grand nombre d'oeuvres réalisées jusqu'à aujourd'hui, assorti de nouveautés présentées au public pour la première fois comme les séries « Elkarbarneraketa - Compénétration », « Eguberri - Jour nouveau », « Amarra - Corde (d'amarrage) », « Zohardi - Ciel clair », « Ildaska - Cannelure » ou autres « Sakonune - Creuset » et « Maitagune - Espace-amour ».

Un programme riche, varié et ouvert à tous les publics : visites commentées, concerts, conférences et sensibilisation jeune public, accompagnera cette exposition.

Merci à toi Ttitto, pour cette belle exposition.

Bonne visite à tous.

**Pierre-Marie Nousbaum**  
**Maire de Saint-Pée-sur-Nivelle**

---

« Euskal Herrian, eskulturak beti izan du toki berezia, gailena. Izan ere, gure kulturaren errotuta dago, eta aitzinako tradizioekin badu zerikusirik, zura eta burdina bereziki lantzen baititu. Baina modernotasun xedea eta sorkuntza ahalmena ere baditu, eta belaunaldiz belaunaldi transmititu egiten dira », hau da « Sculpteurs basques - Euskal zizelkariak » liburuaren sar-hitzan aurkitu daitekeen egileen hitza.

Jardun artistiko bat munduaren irudikapen bati osoki josia, zizelkari dentsitate garrantzitsu batek lurralde hain txikian gorpuzten duena, aldi berean, horietarik bat baino gehiago nazioarte mailan enblematikotzat jo daitekelaarik. Ur Ertsiren bailararen bihotzean, Senpereko Herria bere kultur distiraduraz egunetik egunera nabarmentzen da, Larreko Kulturgunean hainbat gertakari bere baitan hartuz, kontzertu, dantza ikusgarri, antzerki, margo eta zizelketa erakusketak tarteko.

Bide beretik, eta gertakariaren arabera moldatutako Larreko Kulturgunean, Herriak Ttitto Aguerre Senpertarraren obra berez goretsi nahi izan du, plazer handirekin hartzen dugularik artistak gaur arte eraman lanaren zatirik nagusiena, publikoari lehen aldiz aurkeztutako obra berri andana batek osaturik, hauetan « Elkarbarneraketa - Compénétration », « Eguberri - Jour nouveau », « Amarra - Corde (d'amarrage) », « Zohardi - Ciel clair », « Ildaska - Cannelure » edo bestelako « Sakonune - Creuset » eta « Maitagune - Espace-amour » sailak aurkitzen ahalko direlarik.

Publiko guztiei ireki egitarau mamitsu bezain anitza : bisita komentatu, kontzertu, mintzaldi eta haurrenganako sentsibilizazio saioek erakusketa bera osatuko dute.

Milesker zuri Ttitto, erakusketa eder horrentzat.

Bisita on deneri.

**Pierre-Marie Nousbaum**  
**Senpereko Auzapeza**

## Au fil du temps

Une oeuvre se construit : naturellement, intellectuellement, volontairement. Elle est toujours en devenir et ses éléments constitutifs, au fil du temps, en deviennent des repères ... temporels.

Aux premiers temps, vint le bois. Celui d'une poutre, centenaire, qu'un menuisier travaillant à Aldapa, une maison familiale au pied de Larrun à Senpere, avait taillée jadis en fonction de son utilisation. Cet objet devint une oeuvre initiale, non nommée. La suivante, personnalisée, se nomme Xuxurla (le murmure), elle naquit d'un travail minimal d'élargissement d'une pièce de bois altérée et devint deux profils confrontés -homme et femme, femme et homme- ménageant un espace clos de rencontre intime. Le bois fut donc premier dans la recherche de Titto Aguerre. Un bois matériau de la restauration d'une vieille demeure, dont le sol fut sans doute initialement de terre battue et dont l'étable occupait la moitié de la surface. Autre temps, autres usages.

Au début fut donc la matière ligneuse, produit chlorophyllien de l'énergie solaire, et un ensemble de lignes, de profils dans l'espace. Puis vinrent, au terme de rêveries concrètes, de lignes dessinées sur du papier, une forêt d'esquisses produites sans limites réelles. Puis leur transport sur l'écran d'un ordinateur et, en une sorte de jeu-recherche, des modifications de traits, de courbes, d'élans interrompus devant aboutir à une satisfaction de l'oeil. A ce stade, sans doute, vient l'idée d'un devenir plus affirmé, celui de l'oeuvre à venir. Le cerveau doit être alors en plein bouillonnement sensoriel et un ensemble de couleurs, d'odeurs, de formes doit donner en une sorte de syncrétisme, la première ébauche dessinée puis l'oeuvre concrète.

Au bois initial succédèrent d'autres matériaux : cuivre, aluminium, acier, papier, albâtre. Avec ce dernier, la lumière put s'inscrire dans l'oeuvre par la transparence, comme l'éclat de la lune joue avec la nuit. Pour tout dire, à la linéarité schématique de beaucoup d'oeuvres souvent réalisées en bois, je préfère la magie onirique de la série nommée Ilargipe : clair de lune, ou celle intitulée Egunsenti : aube. Sans doute parce que selon la position de la lumière du jour, ou celle de la nuit, elles vivent différemment.

La notion de série introduit le mouvement dans les oeuvres. Ce dernier délivre explicitement un message, celui d'une pensée imprimée dans la matière. Toutes les séries réalisées sont d'abord conceptualisées selon des thèmes récurrents : limites, équilibre, repères, dualité intérieur-extérieur. Ceci n'exclut pas un esprit constamment en action, en éveil, une observation perspicace.

Le hasard d'une rencontre avec la cristallographie vient d'introduire une sorte de paradoxe dans l'oeuvre de l'artiste. On sait que le cube est la forme de cristallisation de la pyrite de fer et que dans les gisements on trouve souvent des groupes de cristaux associés en macles. Il s'agit là d'un jeu apparent de la nature (*lusus naturae*) obéissant à de redoutables contraintes physico-chimiques à très hautes températures. Le hasard y a aussi sa part. Le point de départ d'un cristal est nécessairement un germe et la croissance se réalise par accretion d'une forme bien définie : le cube pour la pyrite, le rhomboèdre pour la calcite ... Il n'y a jamais de surfaces courbes dans les formes obtenues, toutes obligatoirement pleines.

On rejoint là un thème récurrent dans la recherche des artistes basques du siècle passé, celui du vide et du plein. On sait que pour Oteiza, le cromlech est surtout un espace vide, qu'Echevarria tenta toujours de construire des puits de lumière et qu'une partie de l'oeuvre de Chillida ou celle de Basterrechea illustre aussi cet aspect. Il n'est donc pas étonnant que Titto Aguerre, pétri qu'il est de l'oeuvre et des influences de ses devanciers, rencontre ce problème.

Par ce détour vers la cristallographie, il retrouve l'antithèse du vide, de la lumière mais rejoint le feu intérieur de la planète qui a permis la naissance de ces formes pleines, très géométriques, nées à haute température. Formes métalliques révélées en un autre métal, en manière d'une dernière transmutation artistique.

Titto joue là avec l'équilibre des cubes, leur interpénétration qui est une sorte d'entrave spatiale à leur réalisation individuelle en tant qu'élément cristallographique parfait. Cette forme de jeu de lignes, d'équilibres est une constante dans l'oeuvre artistique déjà tracée par lui. On peut ainsi et alors se demander quel chemin nouveau il va prendre et quel sens il va lui donner.

Dans le projet monumental intitulé Jentilbaratz, cromlech composé de cinq éléments, destiné à concrétiser artistiquement le carrefour de Senpere au fil des temps historiques, on retrouve très clairement l'insertion de son oeuvre dans une perspective traditionnelle basque.

Les trois expositions précédentes marquent le début d'un cheminement complexe traduisant en matière les itinéraires de l'auteur. Bien qu'il déclare : "Quand je passe à la matière, c'est pour exécuter", ce qui laisse entendre que la création est d'abord pour lui conceptuelle, il n'est pas sûr que cette déclaration recouvre complètement la réalité du processus intime de l'élaboration de chaque série chez cet artiste.

Ce qui est sûr, par contre, c'est son intimité avec la langue basque, dont les titres choisis pour certaines oeuvres les évoquent mieux que le vocable français. On retrouvera cette évidence tout au long de l'exposition qui nous accueille aujourd'hui dans la profusion de thèmes nouveaux présentés.

**Claude Dendaletche**  
**Écrivain**

---

## Denbora joan ahala

Obra bat berez, buruz eta espres moldatzen da. Beti aldatuz doa. Eta bere osagaiak, denbora joan ahala, denbora-marka bilakatzen dira.

Lehenik, zura. Ehun urteko ernaia. Larrunen oinean, Senperen, Aldapa familia etxean lan egiten duen zurgin batek behiala erabileraren arabera zizelkaturikoa. Objektu hura izenik gabeko lehen obra bilakatu da. Bigarrenik, Xuxurla obra pertsonalizatua. Andeuriko zur pieza baten zabaltzeko egin gutieneko lanetik jalgi da. Buruz buru emanak diren bi profil – gizona et emaztea, emaztea eta gizona – sortu ditu, eta tarte hetsi bat utzi du bi profilen arteko kausitze intimoa gertatzeko. Zura izan da Ttitto Aguerrek bilaketa artistikoak egiteko erabili duen lehen materia. Etxe zahar baten berritzeko ekai hau erabili du. Etxearen zola hasieran hain segur lur-arrasezko zola zen eta barrukiak etxearen erdia baino gehiago hartzen zuen. Beste garai eta ohidura batzuk.

Hasieran, beraz, zurezko ekaia erabili du, eguzki energiaren eta klorofilaren emaitza. Eta lerro multzo bat osatu du, espazioan margotutako profilak. Gero, amets konkretu baten ondotik, paperan margotu lerro batzuen ondotik, mugarik gabeko zirriborro meta bat idatzi du. Ondoren, guzti hori ordenagailu baten pantailara ekarri du, eta bilaketa-joko baten ondotik, marra eta kurba aldaketak egin ditu, oldarraldiak mugatu ditu, begien satisfamendua lortu arte. Hein horretan, dudarik gabe, ideiak argitu zaizkio eta obra osatzen aritu da. Orduan, odola irakitan eta burumuineko zentzuak galdan ari zaizkio. Kolore, usain eta forma multzo bat osatu du, eta horiek uztarturik sinkretismo gisako bat lortu du: lehen zirriborro marraztua eta lehen obra konkretua.

Zuraren ondotik beste materia batzuk gehitu ditu: kobrea, aluminioa, altzairua, papera, harzuria. Harzuriarekin, gardenetasunaren bidez, argia obran sartu du, ilargiaren dirdirak gaua argitzen duen bezala. Egia errateko, zurezko obra anitzen linealtasun eskematikoa baino, nahiago ditu ilargipe edo Egunsenti deitu obra multzoen magia onirikoa. Hain segur, eguneko edo gaueko argiaren posizioaren arabera, desberdinki bizi baitira.

Multzoaren nozioak mugimendua sarrarazten du obretan. Mugimenduak mezu bat adierazten du. Materialen pentsamendua finkatzen du. Obra multzo guztiak errepikatzen diren gai batzuen arabera kontzeptualizatzen dira lehenik: mugak, oreka, erreferentzia guneak, barnearen eta kanpoaren dualtasuna... Eta horrek ez du baztertzeko izpiritua etengabe lanean eta erne izatea eta behatzaile buruargia eta begi zorrotza izatea.

Artistak ustekabeen kristalografiarekin topo egin du. Eta bere obran paradoxa moduko bat ekarri du. Gauza jakina da pirita (burdin-sulfuro naturala) kristalizatuz gero kubo formakoa dela eta hobietan maiz maklan elkarturiko kristal multzoak aurkitzen direla. Naturaren bitxikeria bat da hau (Iusus naturae). Temperatura oso altuen bortxa fisiko-kimikoen eraginez gertatzen dira. Eta halabeharrak hori eragiten du ere, hein batean. Kristalaren abiapuntua nahitaez jatorrizko elementu bat da eta gero forma jakin baten arabera hazten da: piritaren kasuan kubo, kaltzitzen kasuan erronboedroa... Osatzen diren formetan ez dago inoiz azaleko kurbarik, azal guztiak nahitaez beteak dira.

Joan den mendeko euskal artisten bilaketetan errepikatzen zen gaia zen honakoa. Badakigu, Oteizaren ustez harrespila espazio hutsa zela oroz gainera, Etxebarria beti saiatu zela argi putzuak eraikitzen, eta Chillidaren edo Basterretxearen obraren parte batzuek alde hura azaltzen zutela. Ez da batere harrigarri beraz, aitzinekoen obraren eraginaren ondorioz, Ttitto Aguerrek ere gai hura lantzea.

Kristalografiarekin egin lanari esker, hutsaren eta argiaren antitesira doa, eta, hola, planetaren barneko sura heltzen da, zeinak bere tenperatura oso altuei esker forma bete eta arras geometriko horiek sortzea ahalbidetzen baitu. Forma metalikoak beste metal baten bidez agertzen dira, azkeneko transmutazio artistiko baten gisan.

Ttitto kuboaren orekarekin eta beren arteko sarkortasunarekin jolasten da. Kuboak osagai kristalografiko perfektu bezala indibidualki beren bidea atzemateko traba espazial gisakoak sortzen ditu. Lerroekin eta orekarekin jolastuz sorturiko forma horiek Ttittoaren arte obraren ezaugarri iraunkorrak dira. Horregatik gure buruari galda diezaiokegu Ttittoaren obrak zein bide berri hartuko duten eta Ttitto bere obrari zein zentzu emango dien.

Jentilbaratz izeneko sekulako proiektua bost elementurekin osaturiko harrespila da. Artistikoki zera adierazi nahi izan du: historian zehar Senpereko herria beti bidegurutzea izan dela. Argi da obra hau ere euskal ikuspegi tradizionalen kokatzen dela.

Hiru erakusketa horiek bilakaera konplexu baten hasiera seinalatzen dute. Artistak materiarekin izandako ibilbidea erakusten dute. Ttitto zera dio: "materiara pasatzen naizelarik, obra gauzatzeko da". Horrek erran nahi du obra bat gauzatu baino lehen sorkuntza kontzeptualizatzen duela. Baina, adierazpen honek ez du naski artistaren obra multzo guztiak egiteko prozesu intimoaren errealitatea osoki islatzen.

Aldiz, gauza bat segur da: euskararekin harreman intimoa duela. Zenbait obra euskal hitzekin deitu ditu. Eta hitz horiek frantsesezko hitzek baino askoz hobeki azaltzen dituzte obrak. Hori begi bistakoa da eta erakusketa osoan ikusten ahalko da! Gainera, erakusketak gai berri anitz aurkezten ditu ere.

**Claude Dendaletche**  
**Idazlea**

## « Mugak »

Observer les éléments naturels, les matières. Les observer avec insistance. Aller chercher la veine de la matière, appréhender sa vérité et ses limites, et déloger la forme cachée. Chercher pour découvrir, pour se (re)découvrir ; on finit toujours par découvrir quelque chose. Découvrir qu'une intention graphique peut s'accorder avec plusieurs matières. Rechercher et travailler plusieurs séries et pièces à la fois. Marcher, puis s'arrêter, puis revenir plus tard et marcher encore. Rechercher non pas ce que l'on voit au premier abord, mais rechercher ce que l'on peut voir à travers la matière, avec un souci du langage simple qui renvoie chacun à sa propre réflexion.

Chaque sculpture résulte d'une série de décisions. Chaque décision façonne le résultat, avec un aspect irréversible dès lors qu'on enlève de la matière ; on ne peut pas revenir en arrière. C'est en ce sens que la sculpture a quelque chose de vertigineux.

Je pratique ce mode singulier d'expression qu'est la sculpture, et j'ai décidé de la mettre en partage. C'est une expérience profonde et complexe, un état particulier de conscience, une mise en situation de grande réceptivité. Sculpter c'est donner du sens à la forme, à la nature et à l'humain, voir à travers la matière, voir à travers soi, puis voir de manière élargie comme pour sonder les profondeurs de l'humanité.

Dans notre rapport à la nature et au monde, qu'elles soient physiques ou psychiques, les limites sont omniprésentes. On n'en finit pas de rôder autour.

Contraignantes ou pas, mais toujours structurantes, les limites réelles ou selon l'idée qu'on s'en fait, sont à la fois le début et la fin, le possible et l'interdit, protectrices ou aliénantes. Par nature ambiguës, à la fois les limites empêchent, parce qu'elles interdisent, mais paradoxalement elles permettent, parce que précisément elles interdisent.

Évidentes ou non, les limites sont en nous, pour l'essentiel d'entre elles.

**Ttitto Aguerre**

**Ttitto Aguerre** (Uhart-Cize, 1974) vit et travaille à Saint-Pée-sur-Nivelle. C'est en 2002, en intervenant dans la rénovation d'une maison familiale, que Ttitto Aguerre s'intéresse de près au travail du bois. Les souvenirs d'atelier de son grand-père charpentier/menuisier ne sont certainement pas innocents dans le choix de cet artiste autodidacte qui réalise sa première sculpture en 2004. Puis, vient une interruption de quelques années, que l'artiste met à profit pour approfondir ses recherches, surtout sur papier.

Avec le projet « Mugak - Limites », à l'occasion de trois expositions organisées entre 2015 et 2016, Ttitto Aguerre dévoile ses réalisations au public. « Mugak » est la transposition graphique d'un travail de recherche mené sur les limites. En 2019, l'exposition à l'espace culturel Larreko de Saint-Pée-sur-Nivelle marque un moment important dans la trajectoire de l'artiste qui présente un recueil des oeuvres réalisées à ce jour, assorti de nouvelles séries d'oeuvres présentées au public pour la première fois.

## « Mugak »

Naturari beha egon, materiak begiratu. Begiratu sakon. Materiaren zainaren bila joan, bere egia eta mugak sesitu, eta gordea den forma argitarat ekarri. Materia miatu, (hel)burua berriz aurkitzeko. Beti zerbait aurkitzen da. Intentzio grafiko bakoitza, materia ezberdinekin bat etorri daitekeela aurkitu. Miatu, eta sail eta pieza ezberdinak batera landu. Ibili, gelditu, eta ondolik berriz ibili. Miatu, ez lehen begiradan ikusten dena, baina materiaz haratago ikusten dena, hizkuntza ahalik eta arruntenean, norbera bere gogoeten jabe jartzeko.

Zizelketa bakoitza, erabaki andana baten ondorioa da ; hartutako erabaki bakoitzak emaitza moldatzen du. Gauzek itzuldiderik ez dute, materia behin-betiko kentzen delarik ; ez da berriz gibelka etortzen ahal. Zentzu horretan da zizelketa burzoragarria den barne-barneko esperientzia.

Espresio modu berezia den zizelkaritza praktikatzen dut, eta honen partekatzea erabaki dut. Barnakorra eta konplexua den esperientzia bat da, kontzientzia egoera berezi batean murgilduta, zure burua egoera ezinago harkorrean jartzea erabakitzen duzun pundutik. Zizelkatzea, formari, naturari eta gizakiari zentzu ematea da, materiaz eta norberaz haratago ikusten ahalegintzea, eta zabal ikusten ahalegintzea gizadiaren sakontasuna galdezkatzeraino.

Naturarekin eta munduarekin dugun gure hartu-emanen, fisikoak edo psikikoak diren mugak egun orotakoak dira. Mugen inguruan itzulinguruka ibiltzeak ez du etenik.

Hertsagarriak edo ez, baina beti egituratzaileak, errealak edo irudikatutako mugak, aldi berean hasiera eta bukaera dira, posible dena eta debekatutakoa, gerizatzaile edo kontra jartzaile. Jatorriz zentzu bikoitzekoak dira mugak, aldi berean mugatzaile, debeku direlako, baina paradoxazkoa bada ere, baimen ere dira, justuki debeku direlako.

Begi bistakoak izan edo ez, mugak, gure baitan daude gehienak.

**Ttitto Aguerre**


**Ttitto Aguerre** (Uharte Garazi, 1974) Senperen bizi eta lanean ari da. 2002an familieren etxea zaharberritzearekin, orduan da Ttitto Aguerre egurraren lantzeari zinez interesatzen. Maiasturu/zurgina zen bere aitaxiren tailerrean iragan momentuen oroitzapena ez da hain segur ere osoki arrotza artista horren hautuan, autodidakta gisa bere lehen zizelketa 2004an egiten duelarik. Ondotik, urte zenbaiten etenaldia etorriko da, artistak bere ikerketen sakontzeko erabiliko duena, batez ere marraztuz. « Mugak » izenburupeko proiektuarekin, Ttitto Aguerre-ek bere sorkuntza publikoaregana helarazten du 2015 eta 2016 urteetan, hiru erakusketa ezberdinen kariatara.

« Mugak », orotariko mugei buruz eramandako ikerketa baten adierazpen grafikoa da. 2019an, Senpereko Larreko Kulturgunean antolatu erakusketak, artistaren ibilbidean une garrantzitsu bat markatzen du, gaur arte burutu sorkuntza lanen bilduma gisa datorrelako eta hainbat obra sail berri jarriko dituelako publikoari lehen aldiz aurkezten dituenak.





**Sakonune IV, Creuset**  
Altzairua, Acier  
17 x 9 x 9 cm



**Ildaska IV, Cannelure**  
Inprimaketa paperean, Impression sur papier  
71 x 85 cm



**Zohardi IV, Ciel clair**  
Alabastroa, Albâtre  
24 x 21 x 8 cm



**Eguberri IV, Jour nouveau**  
Pagoa, Hêtre  
28 x 22 x 7,5 cm

---

## Contact presse

Anaïs Camou  
Commune de Saint Pée sur Nivelles  
75 rue Karrika  
64310 Saint Pée sur Nivelles  
Mail : [communication@senpere64.fr](mailto:communication@senpere64.fr)  
Tél. 05 59 54 10 19 / Port. 06 11 79 61 52